

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia Irargarkiak

GIZARTE POLITIKEN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 21/2020 Foru Dekretua, ekainaren 16koa. Onestea familia harrerari eta bizikidetzari laguntzeko ezohiko gastuetarako dirulaguntzen oinarri orokorrak

Arabako Foru Aldundia da lurralde historiko honetan adingabeen babesaren ardura duen erakunde publikoa, eta, bereziki, berak bete behar ditu horrelako erakundeei dagozkien eginkizunak, hain zuzen ere, honako hauek esleitzen dizkietenak: 21/1987 Legea, azaroaren 11koa, Adopzio gaietan Kode Zibilaren eta Prozedura Zibilari buruzko Legearen zenbait artikulua aldatzen dituena; 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoa, 26/2015 Legeak aldatutakoa, eta 3/2005 Legea, otsailaren 18koa, Haur eta Nerabeak Zaindu eta Babesteari buruzkoa.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politiken Sailaren helburuetako bat da bere eskumen esparruan gizarte zerbitzuak antolatzea, kudeatzea, ematea eta gauzatzea. Horiek horrela, Arabako Foru Aldundiaren sailak 2019-2023 legealdirako zehazten dituen diputatu nagusiaren uztailaren 5eko 324/2019 Foru Dekretuaren zortzigarren xedapenak haren funtzioak eta eskumenak zehazten ditu: hirugarren adina, desgaitasuna, haurrak eta familia, oinarrizko gizarte zerbitzuak, prestazio ekonomikoak eta ordenamendu juridikoak ezartzen dizkion gainerakoak. Halaber, ezartzen du Gizarte Politiken Sailari atxikita dagoela Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea (GOFE) eta haren helburuak honako hauek direla: gizarte zerbitzuei lotutako jarduerak antolatzea, kudeatzea, ematea eta gauzatzea Arabako Lurralde Historikoan.

Bestalde, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroa arautzen duen urriaren 6ko 185/2015 Dekretuak, Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legeak 22. artikuluan arautzen duen Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoa garatzeko, Arabako Foru Aldundiari ematen dio familia harrera sustatzeko eta hari laguntza teknikoa emateko zerbitzua garatzeko eskumena. Eskumen hori dekretuaren I. eranskineko 2.7.6.1 fitxan azaltzen da. Eta fitxa horretan, helburuen artean, familia harrerarekin lotutako gastuak konpentsatzeko laguntza ekonomikoak izapidetzea dago.

Abenduaren 11ko 179/2018 Dekretuaren bidez, Eusko Jaurlaritzak familia harrera arautu zuen Euskal Autonomia Erkidegoan. Horrela, familia harrera motak eta Foru Aldundiek haien babespean dauden adingabeen familia harrerako prozeduretan jarraitu beharko duten jarduera prozedura ezarri zituen. Arautegi berri horren xedea da biztanleengan eragina izan dezakeen edozein arau eskatzen duen segurtasun juridikoko printzipioa eta EAEko herritar guztien berdintasun printzipioa indartzea da, bizi diren lurralde historikoa edozein dela ere.

Familia hartzaileek harrera programetan beren gain hartzen dituzten zereginak direla eta, gastu ekonomikoek aurre egin behar izaten diete, adingabeen beharrak asetzeko. Kostu ekonomiko horiek ez lukete eragin negatiborik izan beharko adingabeak harreran hartzeko erabakian, ez eta hartutako adingabeak jaso behar duen arretan ere.

Horregatik, pertsona edo familia hartzaileek, familia harreraren ondorioz beren egoera ekonomikoan gaingargarik izan ez dezaten, Arabako Foru Aldundiak laguntza ekonomikoko sistema bat ezarri du familia hartzaileentzat. Sistema hori, familia edo pertsona hartzaileek duten eskubide gisa onartuta dago aipatutako 179/2018 Dekretuaren 11. artikuluen p) apartatuan.

Gaur egun, familia harrerarako laguntza ekonomikoak eta familia harreraren osteko jarraipena arautzeko, Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 15eko 22/2014 Dekretua du Arabako Foru Aldundiak. Horren bidez, adingabeak hartzen dituzten pertsonak edo familiek ezohiko gastuetarako jaso litzaketen konpentsazio eta laguntza ekonomikoak jasotzeko betekizunak, baldintzak eta prozedura arautzen dira.

Aipatutako foru dekretua onetsi zenetik lau urte baino gehiago pasa direnez gero, beharrezkoa da hura berrikustea, lege berrietara egokitzeko, besteak beste, honako hauetara: 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; 11/2016 Foru Araua, urriaren 19koa, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzena, eta 179/2018 Dekretua, abenduaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoan Familia Harrera arautzen duena.

Arautegi hori bat dator Emakume eta Gizonen Berdintasuna lortzeko Eusko Legebiltzarraren otsailaren 18ko 4/2005 Legearekin eta Emakumeen eta Gizonen benetako Berdintasuna lortzeko martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoarekin, emakume eta gizonen berdintasun printzipioa betetzeari dagokionez.

Xedapen hau bat dator Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Foru Dekretuak ezartzen dituen arautze egokiaren printzipioekin. Foru dekretu horren bidez onespina eman zitzaien xedapen orokorrak egiteko prozedurari, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidei eta araugintza teknikari buruzko jarraibideei. Bestalde, aginduzko txosten guztiak eskatu dira.

Azkenik, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauaren 16. artikulua Foru Gobernu Kontseiluari ematen dio Arabako Foru Aldundiaren, foru erakunde autonomoen eta foru partzuergoen esparruan dirulaguntzak emateko prozesua arautzen duten oinarriak onesteko eskumena.

Horregatik, Arabako Gizarte Politiken Saileko diputatuak proposatuta eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hona hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onestea familia harrerak eta familia harrera neurri amaitu ondorengo bizikidetzak eragindako ezohiko gastuekin laguntzeko laguntza ekonomikoak arautzeko oinarri orokorrak, zeintzuen testua foru dekretu honen eranskinean baitago.

Bigarrena. Dekretu hau ALHAOn argitaratzeko agindua ematea.

Xedapen indargabetzailea Dekretu hau indarrean jartzen den egunetik aurrera, indargabetuta geratuko da, araudi honek arautzen dituen laguntzei dagokienez, Familia harreran laguntzeko prestazioak eta laguntza ekonomikoak arautzen dituen arautegia onesten duen apirilaren 15eko 22/2014 Foru Dekretua.

Azken xedapena. Indarrean jartzea Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 99. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, foru dekretu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko ekainaren 19a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Gizarte Politiken foru diputatua

EMILIO SOLA BALLOJERA

ERANSKINA

**FAMILIA HARRERAK ETA FAMILIA HARRERAKO NEURRIA AMAITU ONDORENGO
BIZIKIDETZAK ERAGINDAKO EZOHICO GASTUEKIN LAGUNTZEKO LAGUNTZA
EKONOMIKOAK ARAUTZEN DITUZTEN OINARRI ARAUTZAILEAK**

I. KAPITULUA. ARAU OROKORRAK

1. artikulua. Xedea eta aplikazio eremua

Araudi honetan araututako laguntzen xede dira familia harrerak eta familia harreraren ondorengo elkarbizitzak eragindako ohiko gastuekin laguntzeko konpentsazio ekonomikoaren onuradun diren Arabako Lurralde Historikoko herritarrek jaso ditzaketen ezohiko gastuetarako laguntza ekonomikoak.

2. artikulua. Printzipio orokorrak

Dirulaguntzak printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

- Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibotasuna, berdintasuna eta bereizkeriarik eza.
- Ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna.
- Baliabideak esleitzeko eta erabiltzeko efizientzia.

3. artikulua. Urteko deialdi publikoa

Urtero, ekitaldi bakoitzeko dirulaguntzen deialdi publikoa onartuko da. Deialdian, araudi honetan ezarritako guztia ez ezik, Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezartzen duena ere jasoko da, testu honetan arautu ez bada.

4. artikulua. Oinarria eta izaera

1. Arautegi honetan arautzen diren laguntza ekonomikoen xedea da behar bezala justifikatutako gastu jakinei aurre egitea; harrerapeko eta harrera ostean onuradunarekin bizi den pertsona modu egokian zaintzeko beharrezkoak diren eta inongo sistema publikok estaltzen ez dituen ezohiko gastuak izan behar dira. 2. Urteko deialdietan zehaztuko da zein diren ekitaldi bakoitzean diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak eta gastuak.

5. artikulua. Onuradunek bete beharreko betekizunak

Ezohiko gastuetarako laguntza hauen onuradun izan daitezke Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko 11/2016 Foru Arauak 12. artikuluan ezartzen dituen betekizun orokorrak betetzeaz gain, familia harrerak eta familia harreraren ondorengo elkarbizitzak eragindako ohiko gastuekin laguntzeko konpentsazio ekonomikoaren onuradunak.

Urteko deialdian zehaztuko dira dirulaguntza lortzeko beharrezko betekizun bereziak eta haiek egiaztatzeko era.

II. KAPITULUA

PROZEDURA ARAUAK

6. artikulua. Dirulaguntzak emateko araubidea

Dirulaguntza hauek lehia askean emango dira; funtsak eskaerak jaso ahala banatuko dira, baldin eta eskaerek deialdian ezarritako baldintzak betetzen badituzte, harik eta aurrekontuko zuzkidurak agortu arte.

7. artikulua. Eskaerak aurkeztea

1. Dekretu honetan arautzen diren laguntzen eskaerak urteko deialdian onartzen den eremuan egin behar dira, eta eskaerarekin batera, eskatzen den dokumentazio osagarria aurkeztu beharko da.

Eskaera eredia eskuragarri izango da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Vitoria-Gasteizko bulegoetan eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen webgunean.

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen bulegoetan ez ezik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 16. artikuluan ezartzen duen moduan ere aurkez daitezke eskaerak.

2. Eskaerak aurkezteko epealdia urteko dirulaguntzen deialdia argitaratzen den egunean hasiko da eta deialdian ezartzen den egunean amaituko.

3. Eskaeran nahitaez zehaztu behar da jakinarazpenetarako egoitza. Eskatzailearen arduraz izango da datuetan gertatzen diren aldaketa guztien berri ematea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari, batik bat eskatzailearen egoitzari buruzko datuetan gertatzen diren aldaketen berri.

4. Laguntza eskaera aurkezteak berekin dakar araudi honetan eta kasuan kasuko deialdiko oinarri berezietan ezartzen dena formalki eta berariaz onartzea.

5. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak egiaztatu egingo du epe barruan eta behar bezala aurkeztutako eskaerak osorik dauden eta behar diren agiri guztiak dituzten. Hala ez bada, eskaera aurkeztu duenari errekerimendua egingo dio, hamar egun balioudunetan aurkez ditzan falta diren datuak eta agiriak, eta ohartaraziko dio eskatutakoa egin ezean eskaeran atzera egin duela joko dela ebazpen baten bidez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 68. artikuluan ezartzen duenarekin bat etorritz.

8. artikulua. Deialdiaren instrukzioa eta ebazpena

1. Adingabeen eta Familiaren Arloko Zuzendariorde Teknikoak dauka prozeduraren instrukzioa egiteko eskumena. Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak 22. artikuluan ezartzen duenaren arabera, instrukzio organoak ofizios egingo ditu ebazpenerako behar diren datuak zehazteko, jakiteko eta egiaztatze beharrezkotzat jotzen dituen jarduketak guztiak. Honako eskumen hauek edukiko ditu, batik bat:

a) Ebazteko beharrezkotzat jotzen dituen txosten guztiak eta dirulaguntzari buruzko arauetan eskatzen direnak eskatzea.

b) Ebazpen proposamena aurkeztea Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde organo eskudunari, ondo arrazoituta.

2. Zenbatekoa dela eta, ebazpena emateko eskumena daukan Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde organoak edukiko du araudi honen babesean izapidetzen diren espedienteak ebazteko eskumena, hala agintzen baitu Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren bidez onartutako Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen egitura eta funtzionamenduari buruzko arautegiak 25. artikuluan.

3. Eskatzaileari ez zaio entzunaldiko izapiderik eskainiko, ebazpenean eskatzaileak aurkeztutako gertaerak eta agiriak besterik ez direlako aintzat hartuko.

4. Ebazpena arrazoitu egin behar da, eta honako hauek argitu behar ditu:

a) Laguntza ekonomikoa ematea bidezkoa den ala ez.

b) Laguntza ekonomikoaren zenbatekoa, helburua eta ordaintzeko era.

c) Hala badagokio, noiz emango den.

5. Deialdi bakoitzean laguntza jasotzeko ezartzen diren betekizun guztiak betetzeak ez dakar berez eta besterik gabe laguntza eskuratzeko eskubidea.

6. Deialdi baten babespean laguntza bat emateak ez dakar berekin Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak hurrengo ekitaldietan antzeko jardueretarako nahitaez laguntza eman behar izatea.

9. artikulua. Eskaerak ebazteko eta jakinarazteko epealdia

1. Garaiz eta behar bezala aurkeztutako eskaerak, baldin eta eskatutako agiri guztiak badi-tuzte, aurkezten direnetik hiru hilabete pasatu baino lehen ebatzi behar dira. Epe zenbaketa horretarako, ez da kontuan hartuko espediente etenda dagoen denbora, baldin eta etete horren arrazoiak eskatzaileari badagozkio.

2. Ebazteko gehieneko epea igaro eta esanbidezko ebazpenik ez badago, ulertu beharko da dirulaguntza eskaera ezetsi dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 24.1 a) artikuluan eta Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Legeak 23.5. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

3. Laguntza eman edo ukatzen duen ebazpena 39/2015 Legeak 40. 46. artikuluetan ezartzen duenarekin bat etorritz jakinaraziko zaio eskatzaileari.

4. Ebazpenaren aurka errekurtsioa aurkeztu ahal izango da 39/2015 Legeak 121. 126. artikuluetan xedatzen duenarekin bat etorritz, ebazpena ematen duen organoaren arabera.

10. artikulua. Laguntza ukatzeko arrazoiak

Laguntza ukatzeko arrazoiak hauek dira:

a) Laguntza emateko ezarritako baldintza orokor edo berezietako bat edo foru dekretu honetan, urteko deialdian eta ordenamendu juridikoan ezarritakoetako bat ez betetzea.

b) Eskaerako edo harekin batera aurkeztutako agirietako daturen bat egiazkoa ez dela egiaztatzea.

c) Laguntzak emateko aurrekontuan ezarritako kreditua agortzea.

11. artikulua. Ebazpena aldatzea

Laguntza emateko kontuan hartutako inguruabarretako bat aldatzen bada, ebazpena aldatu ahal izango da, eta gerta liteke laguntza itzuli behar izatea.

12. artikulua. Onuradunen betebeharrak

Foru dekretu honen babespean laguntzaren bat jasotzen dutenek honako hauek egin beharko dituzte:

a) Laguntza ekonomiko zertarako eman den, hartarako erabiltzea.

b) Dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein baldintza subjektibo zein objektibo aldatu izanaren berri ematea.

c) Laguntza eman duen erakundearen egiaztapen jarduketak onartzea, bai eta Arabako Foru Aldundiko Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak eta beste organo eskudun batzuek ekonomia-finantzen kontrolerako eta kudeaketarako egiten dituztenak ere.

d) Gizarte Zerbitzuen Sailari eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari baimena ematea eskatzailearen datu pertsonalak eta, behar den kasuetan, familia unitateko beste pertsona guztienak helburu hauetarako erabiltzeko, datu pertsonalen babesaren legerian ezartzen den bezala: estatistikak egiteko, zientzia ikerketarako eta zabalkunderako, eta Gizarte Zerbitzuen Sailaren eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen berezko eginkizunetarako.

e) Araudi honek eta Arabako Lurralde Historikoko dirulaguntzen urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak ezartzen dituzten gainerako guztiak.

III. KAPITULUA

FINANTZAKETA ETA ORDAINKETA

13. artikulua. Laguntzen finantzaketa eta zenbatekoak finkatzea Laguntzak zehazteko irizpideak

1. Urteko deialdian zehaztuko da deitzen diren laguntzetarako erabil daitekeen gehieneko zenbateko osoa eta laguntzak aurrekontuko zer partidari egotziko zaizkion, bai eta zenbateko gehigarria ere (ehunekoa kasuan kasuko deialdian zehaztuko da).

2. Aurrekontu ekitaldi bakoitzean ematen diren laguntzen guztirako kopurua ezin da izan aurrekontuan horretarako ezarritakoa baino handiagoa.

3. Laguntzak baliagarri dagoen kreditua agortu arte emango dira, eskaera (ondo beteta) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen erregistroan jaso den dataren eta orduaren arabera lehentasun ordenari jarraituz.

4. Urteko deialdian zehaztuko da onuradun bakoitzari zenbat eman dakioken gehienez diruz lagun daitekeen kontzeptu bakoitzagatik.

14. artikulua. Ordaintzeko era

1. Oro har, ezohiko gastuetarako laguntza ekonomikoak gehienez hilabeteko epean ordainduko zaizkio onuradunari, gastua justifikatzen eta ordainketa frogatzen den egunetik aurrera.

2. - Ekitaldi bakoitzeko deialdian, konturako aurrerakinak ordaintzeko aukera jaso ahal izango da, eta kasu bakoitzerako ordainketa modua ezarri.

15. artikulua. Laguntzak justifikatzea

1. Urteko deialdian zehaztuko da nola eta noiz justifikatu behar diren laguntzak.

2. Urte bateko deialdian konturako aurrerakinak ordaintzeko aukera ezartzen bada, aurrerakin horiek Gizarte Ongizaterako Erakundeko Adingabeen eta Familiaren Arloari justifikatzeko modua ere zehaztuko da.

16. artikulua. Laguntzen metaketa eta bateraezintasunen araubidea

Laguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio edo erakunde publiko zein entitate pribatu batzuek (estatukoek, Europar Batasunekoek zein nazioartekoek) ematen dituzten xede bererako beste dirulaguntza eta laguntza batzuekin.

Ematen den banako dirulaguntza baten zenbatekoa ezin da izan, bera bakarrik zein estatuko zein nazioarteko beste administrazio edo erakunde publiko zein entitate pribatu batzuek emandako dirulaguntza, laguntza eta gainerako sarrerekin bat eginda, onuradunak egiten duen guztizko gastua baino handiagoa.

17. artikulua. Dirulaguntza itzultzea

Onuradunak jasotako kopurua itzuli beharko du honako hauek ezartzen dituzten kasuetan: Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzei buruzko urriaren 19ko 11/2016 Foru Araua, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta aplikatu beharreko gainerako arau guztiak.

Onartutako dirulaguntzaren kontura jasotako kopuruen itzulketa zuzenbide publikoko diru sarreratzat hartuko da eta haren kobrantza ekonomia eta aurrekontu araubideari buruzko abenduaren 18ko 53/1992 Foru Arauak II. tituluko I. kapituluan ezartzen duenarekin bat etorritik egingo da.

18. artikulua. Datuen babesia

1. Indarrean dagoen datu pertsonalen babesari buruzko araudiak xedatutakoaren arabera, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak tratatuko ditu deialdi honek arautzen dituen laguntzak jasotzeko aurkezten diren eskaeretako datu pertsonalak eta baita laguntzak kudeatzeko, harremanetan egoteko eta komunikatzeko eta erakunde honi eskatutako edo erakunde honek emandako zerbitzuak kudeatzeko interesdunekin harremanetan jarrita eskuratzen diren guztiak ere.

Datuak tratatu ahal izateko, interesdunak baimena eman behar du edo foru erakundeak bere berezko funtzioak betetzeko erabili behar ditu bere eskumenen esparruan, edo bi baldintza horiek bete behar dira. Datuak ez zaizkie hirugarrenei helaraziko, legeak baimendutako kasuetan izan ezik. Datuak ez zaizkio estatutik kanpoko inori helaraziko. Babes bereziko datuak dira.

2. Interesdunek beren datuak ikusi, aldatu eta ezabatu ditzakete, eta baita horien gaineko beste eskubide batzuk baliatu ere, honako webgune honetan dagoen informazio osagarrian ikus daitekeen moduan: https://www.araba.eus/cs/Satellite?c=Page&cid=500000265916&page_name=IFBS%2FPage%2FIFBS_sinContenido, edo idazkia bidal dezakete, beren NANaren bidez

identifikatu ostean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundera, San Prudentzio kalea 30. 01005 Gasteiz, edo posta elektronikoa bidal diezaiokete datuen babeserako gure ordezkariari honako helbide honetara: dpd_ifbs@araba.eus.

3. Aipatutako datuak tratatzearen aurka egiteko eskubideaz baliatzeak laguntzak ukatzea ekarriko du.

19. artikulua. Errekurtsoak

Oinarri hauek eta beren ondoriozko administrazio egintza guztiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak arautzen dituen kasuetan eta bertan finkatzen den moduan.

20. artikulua. Ordezketasun arauak

Foru dekretu honetan xedatzen dena honako hauetan ezartzen denaren mendean dago: 11/2016 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntzena; 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzena; 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren arautegia onesten duena; 53/1992 Foru Araua, abenduaren 18koa, Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontuen Araubide Ekonomikoarena; 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena; deialdia egiten denean indarrean dagoen aurrekontuen antolamenduari buruzko foru araua; Eusko Legebiltzarraren 4/2005 Legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerakoa; 2/2007 Lege Organikoa, martxoaren 22koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasun eragingarrirakoa, eta aplikatu daitezkeen gainerako arauak.